Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Juanatxo Olinaga Urdangarin

Urnieta, Gipuzkoa (1931)



Aurkibidea

Biografia



Urnietako Barkiztegi baserrian jaio zen eta aitona eta amonarekin bizi izan zen 5 urte bete zituen arte. 3 senide ziren eta bera zen emakumezko bakarra. 5 urterekin Arantzubi txikira joan ziren bizitzera eta 11 urte zituenerako Iriondo-enea (Lourdes Iriondo zenaren etxera) joaten hasi zen ume-zaintzera. Iriondo-enearen lehenengo harria ikusi omen zuen berak. 15 urte zituela Olamia izeneko lantegian hasi zen lanean: han egurrezko taulak egiten omen zituzten. 1989 inguruan joan ziren egun bizi den Erreka-Beltza baserrira bizitzera.

Zintak

URN-005

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Data**: 2009-12-04
- **Iraupena**: 148 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Aitona-amonekin hazitakoa txiki-txikitan

- **Erref**: URN-005/002
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:02:04. **Bukatu**: 00:03:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Aitona-amonek zaintzen zuten txikitan. Amona astoarekin joaten zen Hernanira esnea partitzera. Handik, laranjak ekartzen zituen, eta usain ederra izaten zuten laranja haiek. Amona etxera etortzerako, aitonak baratxuri-zopa prestatzen zuen. Gerora, 5 bat urte zituela, kalera joan ziren bizitzera.

2. Baserritik kalera joandakoan etorritako nahigabeak

- **Erref**: URN-005/004
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:04:25. **Bukatu**: 00:05:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Barkaiztegin bizi izan zen Juanatxo, koskortu zen arte, aitona-amonekin. Gerora, Aranzubitxikira joan ziren bizitzera. Han zeudela, aita trenak harrapatu zuen eta hil egin zen. Juanatxok 15 urte zituen orduan.

3. Iriondotarrenean eta Olamian lanean

- **Erref**: URN-005/005
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:05:38. **Bukatu**: 00:07:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
11 urte zituela, Lourdes Iriondoren familiaren etxera joan zen neskame. Familia handia zen hura. Olamia fabrikan lanean hasi zen garaian ere, plantxa egitera joaten zen Iriondotarrenera. Olamian 12 urte eman zituen lanean. Aitaren heriotza gainditu zuenean, oso neska alaia izan zen.

4. Dantzari eta kantari amorratua

- **Erref**: URN-005/010
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:17:34. **Bukatu**: 00:18:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Dantza eta kanta izugarri gustatu izan zaio. Kalean ere dantzan eta kantan aritzen zen.

Transkripzioa
-Ikaragarri gustatzen zitzaten kantatzia ta, dantza ta. Pentsa zazu, dantza, esango dizut, oain soltera do hoi, baiño nee aldemenian bizitzen zan. Ta ordun, oain do kamio elegantia einda, baiño ordun zan dena harriz betetako estrata zahar bat. Nola esan dizut lehenguan kalabaza... Bai, bai, eta han. Ta amak bialtzen niñun, razionamentun ematen zuen gailletak eta holako gauzak, eta amak bialtzen niñun, eta geo ardo goxua, ardua edo ez dakit zer ekarriko nun. Eta itten nun gailletak jan, ardo tragoxka bat in eta estretan dantzan ibilli bakarrik. Eta denak kaletik jende guzta beira. baiña ni ez nintzan kontuatzen. Goitik eta behetik dena ikusten niñuela. Ni ez

nintzan... Eta oain esaten du neska ze horrek, esaten dit: "A, Joanatxo.Joanatxo, zenbat dantza eitten zendun. Amak goiti deika: "Neska, etorriko al haiz etxea!", ta segi nik, gailletak jan ta ardo pixkat edan ta. Segi dantzan bertan. (Barre).

5. Xoxokara joateko arropa

- **Erref**: URN-005/011
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:18:32. **Bukatu**: 00:19:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Xoxokara joaten ziren bileretara. Hara joateko, arropa ondo prestatzen zuen.

6. Arropa plantxatzeko zaletasuna

- **Erref**: URN-005/012
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:19:17. **Bukatu**: 00:20:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Arropa plantxatzea asko gustatu izan zaio. Plantxa egiteko, nola moldatzen zen aipatzen du.

7. Osasun betean, denera iristeko energiarekin

- **Erref**: URN-005/016
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:26:08. **Bukatu**: 00:26:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Goizero-goizero, 7etako meza entzutera joaten zen Juanatxo; eta, gero, 8etarako, fabrikan hasten zen lanean. Bizikletaz joaten zen, eta batzuetan, kamioiari atzetik heltzen zion, azkarrago ailegatzeko. Osasun ona izan du Juanatxok.

8. Olamia fabrikan lanean

- **Erref**: URN-005/017
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:26:55. **Bukatu**: 00:29:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Olamian zer lan egiten zituzten azaltzen du. Egurra putzuetan edukitzen zuten, makinetatik pasa aurretik. Behin, Juanatxo putzu haietako baten erori zen. Egurra lantzeko prozesua nolakoa zen azaltzen du. Langileen arteko giroa, lan-baldintzak...

9. Etxeko ateak zabalik, eta kafea prest

- **Erref**: URN-005/021
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:32:55. **Bukatu**: 00:35:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Amak kafea prestatzen zuen, elizatik bueltan zetorren jendeari emateko. Jende asko etortzen zen beraien etxera: kafea hartzera, dotore janztera... Beste baserrietan ez zeukaten halako ohiturarik.

10. Ondo begiratu behar oinetakoak non utzi

- **Erref**: URN-005/023
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:36:19. **Bukatu**: 00:38:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Igokundearen (Aszensioaren) egunean, 40 kredo errezatzen ziren. Haietako batean, baserri bateko semeak, mezara joatean, oinetakoekin izandako anekdota kontatzen du.

11. Senide ugariko familiaren txistea

- **Erref**: URN-005/024
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:38:58. **Bukatu**: 00:39:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Senide ugari ziren familia bati buruzko txistea kontatzen du.

12. Txiste bat

- **Erref**: URN-005/027
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:42:13. **Bukatu**: 00:43:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Txiste bat kontatzen du.

13. Kalabazarekin bihurrikeriatan

- **Erref**: URN-005/029
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:43:50. **Bukatu**: 00:44:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Kalabazarekin egindako bihurrikeria kontatzen du.

14. Zarautza bizikletaz joan ziren eguna

- **Erref**: URN-005/031
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:46:40. **Bukatu**: 00:48:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:
Gaztetan, bizikletan ibiltzen zen, anaiari tonbolan nesken bizikleta tokatu baitzitzaion. Urte batean, anaia eta Juanatxo Zarautza joan ziren bizikletaz; han, izozki bana erosi zuten, baina lurrera erori zitzaion Juanatxori, eta batere gabe geratu zen.

15. Zilegiak

- **Erref**: URN-005/034
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:53:42. **Bukatu**: 00:54:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak

Laburpena:
Zilegiak zer ziren azaltzen du.

16. Kalean, gauero antzerkia

- **Erref**: URN-005/036
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:55:52. **Bukatu**: 00:58:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:
Emakume batek antzerkiak egiten zituen kalean, ia gauero. Kaleko umeak harekin ibiltzen ziren jostaketan.

17. Juanatxo film batean azaldu zenekoa

- **Erref**: URN-005/048
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 01:05:20. **Bukatu**: 01:06:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Behin, film batean atera ziren Juanatxo eta bere lagunak; izan ere, filmaren grabazioa Urnietan bertan egin zuten, eta hainbat herritarrek hartu zuten parte.

18. Titiriteroak Urnietako kaleetan

- **Erref**: URN-005/050
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 01:07:04. **Bukatu**: 01:09:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:
Gauetan, titiriteroak izaten ziren Urnietan, eta beraiek haiei begira egoten ziren, badira 50 urte. Orduko kanta bat gogoan du.

19. Mezak latinez zireneko kanta

- **Erref**: URN-005/052
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 01:12:49. **Bukatu**: 01:14:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:
"Salve Regina" abesten du. Lehen, mezak latinez izaten ziren gehienbat. Jendeak fede handia zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-22

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com